

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Gautegiz-Arteagako Udala****Gautegiz-Arteagako J.U. 18 Jarduketa-Unitatearen birpartzelazioaren hasierako onarpena.**

Gobernu Batzordearen 2019ko otsailaren 15eko lehenengo ebazpenaren bidez, hasierako onarpena eman zaio Gautegiz-Arteagako (Bizkaia) J.U. 18 Jarduketa Unitateari eragiten dion Birpartzelazio Proiektua. Hori jendaurrean jartzen da, 20 eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 43. artikuluan xedatutakoa betez, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera Udalean aztertu ahal izateko eta egoki iritzitako alegazioak formulatzeko.

Espedientea Udaletxeko Idazkaritzan egongo da ikusgai, adierazitako epean, bulego orduetan.

Gautegiz-Arteagan, 2019ko martxoaren 12an.—Alkatea, Juan Felix Naberan Ozamiz